

## Larraga eredu

**ESPAINIAKO HAUTESKUNDE** orokorrak udazkenera aurreratuko direla bolo-bolo dabil. Batek daki, baina hor da legea eta zilegitasunaren arteko lehia, PSOEn gertuko lerroetatik aitortzen den gisan: bai, legez agortu daiteke legealdia, baina demokrazian gobernatzeko herritarren sostengua da zutaberik garrantzitsuena eta, alde horretatik, Zapateroren zilegitasuna eta indarra oso kolokan geratu dira maiatzaren 22ko porrotaren ondoren.

Eta argudioak eta logikak Espainiako Gobernurako balio badu, are eta gehiago Eusko Jaurlaritzarako. Esan daiteke udal eta foru hauteskondeek izaera bat dutela eta oso bestelakoa autonomikoek, baina PSEk jasotako porrotak eta Bilduren garaipenak argudio hori samur gainditzen dute oraingoan. PSE-PPrena Gobernu artifiziuala zen lehen eta are gehiago orain. Ezikusiarena egin dezake Lopez lehendakariak, ekitaldiz ekitaldi biluzik, baina herritarrak ez dira itsu. Ardurako politikoaren ikuspegitik gauza bakarrak justifika lezake hauteskondeak ez aurreratzea: Lopezek Jesus Egigureni kasu egitea eta Gobernua normalizazio politikoaren zerbitzura jartzea, egituratzen ari den bake prozesuari Ajuria Eneko atek parez pare zabalduz.

Azken finean, denok dakigu normalizazio politikoaren aroan sartuta gaudela, eta denok dakigu zeregin horretan engaiatzea denbora kontua besterik ez dela. Elkarrizketa eta negoziazioaren ordua da: euskal gizarteko herritarren gehiengo handiak hori nahi du, bitartekaritza eta laguntza lanetarako prest den nazioarteko talde indartsua ere eratua dago... Zer gehiago behar da? Urratsak ematen jarraitzea, eta batzuk horretan serio hastea.

Zerikusirik izango ote du urrats horiekin Miguel Buen Herrizaingoa

Sailera eraman izanak? Egia ote zurrumurruek dioten gisan, Rodolfo Aresek ordezkaturako duela Alfredo Perez Rubalcaba Espainiako Barne Ministerioan? Aresek berak ukatu egin du halakorik, baina badakigu, politikarien artean orain zuri gero beltz.

**BOTO ZAPARRADA** hautetsi zaparrada bilakatu da Bildurentzat: 123 alkate, 1.000 milioi euroko aurrekontuak, ehunka mila pertsona bere gobernupean... Duela bi urte Patxi Lopez lehendakari izendatu zutenean, gertaera harekin benetako euskal gizartea azaleratzen zen eta herrialderik ederrenean bizitzen hasteko aukera genuen azkenean.

Bi urtetan nola aldatu den euskal gizartea Gorka Maneirorentzat: "Euskal gizartea gaixo dago", zioen hauteskondeen biharamunean Radio Euskadiko elkarrizketa batean. Baina Maneiro apala da oso bere buruzagi Rosa Diezen aldean, honek Bildurena nazismoak instituzioetan izan zuen sarrerekin erkatu baitu. Emilio Guevarak ere garrantz idazten zuen joan den igandean El Pais-en: "Maiatzaren 22ko hauteskondeek baieztatu egiten dute Euskadik duen gaixotasuna...". Eta PSEko Iñaki Arriolak ere bai, ironiari leku eginez, baina aski era adierazgarrian zera zioen iragan larunbatean: "Egibarrek Gipuzkoako Diputazioko EAJren zikloa ixtea

**Dena da posible salbu eta PSNk indar abertzaleak eta aurrerakoiak engainatzea. Roberto Jimenez eta enparauek ez dute gainerik samur kenduko antzezle txarren ospea**

erabaki du, baldin eta Bilduk kargua EAJri eskaintzen ez badio, zoroen herri honetan dena da posible eta".

**DENA DA POSIBLE**, salbu eta PSNk indar abertzaleak eta aurrerakoiak engainatzea. Roberto Jimenez eta enparauek ez dute gainerik samur kenduko antzezle txarren ospea. Joan den legealdian Madrilekiko menpekotasuna geratu zen agerian, eta egia esan, aldaketa nahi zuten nafar herritarrak haserretzeko modukoa izan zen hura, baina ez harriztekoa. Orduan behinik-behin duintasun agerpenik ere izan zen eta Fernando Puras PSNko lehendakariagaia etxera joan zen. Lekutan da Jimenez. San Ferminak artean ikusi ahal izango dugu zein era gogor eta tinkoan negoziaturiko duen Yolanda Barcinarekin eta, ondorioz, nola lortuko duen baldintzatzea UPNren datozen lau urteotako gobernua.

PSNren bidea ez da koherentea saltzen duenarekin eta hala doakio. Eta pena da, behin eta berriz nafarren gehiengoak nahi duen aldaketa ez gauzatzeak etsipen maila bat ere sortzen duelako askorengan, bereziki PSNko botoemaile eta botoemaile ohien artean.

Okerrena da ispilua barruan dutela, baina kasurik ez. Larragan esate batera: han Antonio Lambertok PSNko alkatea ateratu da Bilduren botoekin (3 + 3, eta eskuindarrak, UPL, 5) eta gobernu akordio eredu-garria adostu dute. Besteak beste herritarren partehartzea eta garrantzitasuna bermatu nahi dute. Nola egiten da hori, esate batera, Bildu Bizkaiko Biltzar Nagusietako mahaitik kanpo utzita? Horretan behintzat Gipuzkoako Biltzar Nagusietakoa eredu jasoago da, zalan-tzarik gabe.